


LITERATURA. Sorteritik joateak daraman absentsia irudikatu du



BOB EDMÉ

Mikel Ibarra idazlea bere liburua esku artean duela.

Deserria fisikoki eta barne gogoeta gisa landu du bere olerki bilduman Ibarra

Ziburu eta Donibane Lohizuneko karriken artetik eramaten du luma

Nora Arbelbide | BAIONA

Deserriak berea ez den ohean egingo du lo gaur ere, / berea ez den kikan edango du kafea eta / berea ez den etxeko leihotik ikusiko du ilargia. / Apurka-apurka berea ez den herria maitatzen hasiko da, / eta berea ez den itsasertzetik begiratuko dio sorterriari Bere sorterriari eskaintzen dio olerki hau Mikel Ibarra, *Deserriko karrikak* olerki bilduma berrian.

Azken bost urte hauetan Zesto bere sorterria gibelean utzirik, Ziburun bizi da olerkaria. «*Deserria* hitz polisemiko gisa erabili dut. Batetik, erbeste politikoa adierazi nahi du, eta, bestetik, barne gogoeta azaltzeko erabili dut», zioen Ibarra. Orotara 77 olerki bilduak ditu bere bigarren bilduma honetan.

Jon Benito idazleak Ibarra olerkariaren deserria esplikatzerakoan «gatazka baten ondorio» gisa deskribatu zuen. «Deslekua, babesik gabekoa, mundu guzira arrotz den leku da bere deserria». Halere, berea ez den sorterri hori «maitatzen hasten dela» agertzen dela azpimarratu zuen Benito.

Deserri fisikoa, sorteritik joanez gero senti daitekeenaren

MIKEL IBARRA

Poeta

«Deserriaren bi zentzuak erabili ditut: erbeste politikoa gisa eta barne gogoeta gisa»

ondorioa, edo bere barnekoa azaleratzen du olerkietan Ibarra.

Fisikoki egin duen bizigune aldaketa barneratzen du. «Barnerako hitzak, aitortu ez direnak» paperean pausatu dituela adierazi zuen Jon Benito.

Deserri hori absentezik, «besoen artean ez direnak» osatzen dute Benito dioenez. Gorka Arrese Susako editoreak maitasuna, edo hobeki errateko, «maitasunaren absentsia» ere irakurri du. Horrenbortzean, heriotzari ere tarte bat eman dio.

Deserriaren itzalpean, mugaren gai konstante bat da. Zesto eta Zibururen artean, «joan eta etorri hauetan muga badago. Pausun, poliziak daudenena» zioen. Baina «nik ez dut mugarik sentitzen. Mugarekin deserritasun horrek indar gehiago

hartzten badu ere, ni, Ziburun Bilbon bezain arrotz sentitzen naiz», zehaztu zuen olerkaria. Honek arrazoi sinple bat dauka. «Amazulo bat naiz. Zesto sorterria dena izan da niretzat». Handik kanpo edozein lekutan izan ere galdua sentitzen da, eta hori bera irakur daiteke olerkietan.

Kontzeptu abstraktu horiei espazio zehatz bat emateko atal bakoitza izendatzeko bere eguneroko biziko diren guneak hautatu ditu. «Espazioen metafora gisa», zehaztu zuen Ibarra.

Ziburuko eta Donibane Lohizuneko karrikak bide

Bost atalen artean zatitua da liburua. Atal batetik bestera pasatuz, irakurlea karrika batetik bestera ibil daiteke, olerkariak bere bizian egiteko usaina duen bezala, hain zuzen. Ziburuko karriketatik Donibane Lohizunekoetara pasatuz, «gustura» galtzen den karriken izenak hautatu ditu Ibarra. *Carrefour des Evadés*, (iheslarien bide gurutzak), edo *Rue d'Espagne*, (Espainiako karrika). Bidaia baten proposamena egiten du bere barnekoetatik espazio konkretuetara.

LEIHATILA

Jose Luis Padron ■ Poeta

Tangotik tongora arin-arin

Eskutitza daramat poltsikoan:

«Zuzendari Jauna

Diario La Nación

S/D

Zilegi balitz eta berorrek hala adostuko balu, erregutuko nioke irakurleen eskutitz atalean honako oharra argitaratzea:

Itsuen herrian...

Argentinarrak, 50-60 urtez luzatu eta ideologia ezberdinak hartu dituen aginte modua jasan beharrean aurkitu gara era izugarri, hoge milioi pertsona behar gorritaraino hondoratu duen liberalismoa lagun, arazoak arazoitu eta konpontzeko gaitasunik gabe, handinahiak itsutu arduradunen eskutik betiere, alde aurretik erabakitako mezuak igorritelaz herriari, guztion ongizatea baino haien irudiaren pinpilinpauxa zainduz soilik, gizartearengan duten eragina neurtuko duten aholkulariak dituztela aldamenean. Hori baino ez digute eskaintzen, pertsonai ilun eta gezurtiak. Pakea eta duintasuna bat barneratu nahi dugu argentinarrak, ez da asko ustea. Errotik atera dizkigute begiak, indarrez hartu gure kultura, heziketari bere zentzurik gorenena gaixotu arazi, sistemaren merkataritza bihurtu gaituzte, ondoezan ondoez larrienaren seme egin gaituzte, giza-baloreak gitxiesten erakutsi digute, baloreak baliogabetu, eta ongi ikasi dugu haien lekzioa, ongiegi, eta irakasletzat jo ere, gure nortasun Nazionala ezabatu dute, atzeritarren esku jarri ditugu gure lurak, mundu mailako enpresei oparitu gure zerbitzu lantegiak, gure mehategiak, gure petroloa, gure izadia, argentinarra oro, argentinarraren guztiona,



NATACHA PISARENKO / AP

Poliziak Lapurak dioten pintada baten gainetik igarotzen, Buenos Airesko finantza barrutian.

belaunaldiz balaunaldi argentinarrak erein eta bildutako dena, eta gizarteaz eta seme-alabetaz ahazterainoko diru goseaz mozkortu dute bihotz oneko jendea.

Gaitzok diren pertsonaia horiek, hain gaitzok diren horiek beraiek, korrupzioaren pipiak jota gehienak, ez dute akatsik egingo administratzaileak eta hautagaiak proposatzerako orduan, lur emankorrek ur garbia behar duen bezala behar dutelako haiek ere gurea bezalako gizartea, ziurtasunik batere ez duen herria, desesperatua, lur jota behar duena, horiek baitira hain zuzen ere gora, gora, zeruraino hazteko behar dituzten baldintzak, bai baitakite gurea bezalako egoerek ez dutela erakusten etorkizuna lantzen hasteko arriskurik, sekulan, horrelako lurretan ez baitira agintariak etorkizunez blai jaiotzen, agintari ondutuak, justoak, ez gehiago ez gutxiago, buru argi onekoak, gizatiarra den bidearen oinarritzko urratsak erosten ez dituztenak, are gutxiago lapurtu diguten diruaz».

Ataundar arbasoak dituen Raúl Olhaberry sinatzen du eskutitza, helbidea, nortasun agiri zenbakia eta guzti. Futbolinean jolastera jarri eta hitzegiten hasi ginen hartan eskuratu zidan Wenceslao Muir Elizondok, bere sustraiak Andoain eta Aduna bitarteraino luzatzen dituen argentinarraren gazteak. Orain aste batzuk Euskal Herrian barna euskal dantzak ikasteko helmuga zekarren talde burua da Wenceslao Muir Elizondo. Txantxetan esan genuen, bai, baina tangoak eta arin-arinak herrien jira-biraren hondoa.